

erren ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



IRAKASKUNTZA GIDA **KAZETARITZAKO GRADUA**

<http://www.ehu.eus/gkz-csc>

HELBURUAK

Kazetaritzako Graduaren helburua da ikasleak prestatzea **XXI. mendeko hedabideetan eskatzen diren zeregin profesionalak betetzeko**, eta instituzio zein enpresek eskatzen dituzten komunikazio lanak betetzeko. Ikasleek ikasiko dute irrati, telebista, prentsa, eta Interneteko tresna profesionalak eta multimedia teknologia berriak irizpidez erabiltzen.

Irrati eta argazki laborategiak, telebista platoak, bideo ediziorako gelak, audio eta bideo digital postprodukzio laborategiak eta grabaziorako ENG ekipo osoak, ikus-entzunezko komunikazioko espezialista bilakatzeko bidean, Fakultateak ikasleei eskaintzen dizkien baliabideetako batzuk baino ez dira.

TITULAZIO HONEK IKASLEARI GAITASUNA EMANGO DIO:

- Komunikazioaren teoriak ulertzeko.
- Gizarte prozesuak eta gertaerak aztertu eta azaltzeko.
- Informazio lanei kazetaritza genero eta formatu desberdinak aplikatzeko.
- Iturri desberdinetako informazioa aztertzeke, edukiak forma eta estrategia narratiboetara moldatuz.
- Hedabide desberdinetako edukien alderdi formal eta estetikoak diseinatzeke.
- Ahoz zein idatziz erraztasun eta eraginkortasunez komunikatzeko.
- Informazio edo komunikazio proiektuak behar bezala planifikatzeko eta kudeatzeko.

ELEANIZTASUNA

Kazetaritzako Graduak oinarritzko eta nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazkoetako gehienak autonomia erkidegoko bi hizkuntzetan eskaintzen dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Gradu Amaierako Lana bi hizkuntza hauetako edozeinetan egin daiteke.

Gainera, Fakultateak parte hartzen du aktiboki UPV/EHUren Eleaniztasun Planean, eta ikasturtez ikasturte gero eta irakasgai gehiago eskaintzen ditu hizkuntza ez ofizialetan. 2017-2018 ikasturterako, Kazetaritzako Graduak ondorengo ingelesezko irakasgaiak eskaintzen ditugu:

- Language Usages in Media
- International Relations
- Communication Management at International Organisations
- Basque Language, Culture and Media
- Communication and Advertising: Strategies of Persuasion
- History of the Contemporary World
- Statistics Applied to Communication
- Multimedia Editing and Production
- Press Offices: Organizational Communication

BI GRADU ALDI BEREAN

Bi gradutako ikasketak aldi berean egiteko eskaria aurkeztu ahal du ikasleak lehen maila amaitu eta gero. Gure ikastegiko ikasketak planen diseinua dela eta, bi urte gehiago eginda bigarren gradua amaitu daiteke Komunikazioaren Arloan: Ikus-entzunezko Komunikazioa edo Publizitatea eta Harreman Publikoak. Izan ere, bi gradu hauetako bakoitzak hainbat irakasgai partekatzen ditu Kazetaritzako Graduarekin: 16 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduarekin, eta 15 derrigorrezko irakasgai gehi 5 hautazko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Publizitatea eta Harreman Publikoetako Graduarekin.

Era berean, Kazetaritzako Graduak gure Fakultatean eskaintzen diren Gizarte Zientzien A rloko bi graduekin ere partekatzen ditu irakasgaiak: 6 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Soziologiako Graduarekin, eta 7 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduarekin.

IKASKETA-PLANA

KREDITU BANAKETA ETA IKASTORDUAK GUZTIRA						
Maila	Adarreko Oinarritzko Irakasgaiak	Beste adar batzuetako Oinarritzko Irakasgaiak	Nahitaezko Irakasgaiak	Hautazko Irakasgaiak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1	42	6	12			60
2	12		48			60
3			36	24		60
4			24	24	12	60
GUZTIRA	54	6	120	48	12	240

Ikasketak guztira 240 kreditu ditu, hau da, 40 irakasgai.

Ikasturteak lauhileko bi ditu, bakoitzak 15 irakaskuntza-aste daukana. Irakasgai guztien ohiko azterketa irakaskuntza amaitu ostean egiten da (urtarrilean edo maiatzean), eta ezohiko azterketa ekainean egiten da.



AIPAMENAK EDO IBILBIDEAK

Nahi izanez gero, ikasleak Graduak eskaintzen duen aipamena ikas dezake. Aipamena lortzeko bere bost hautazko irakasgaiak gaindituta izan behar dira, hirugarren eta laugarren mailatan.

KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ZUZENDARITZA
Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza
Bozeramaileen Prestakuntza
Komunikazio Bulegoak
Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan
Harreman Publikoen Teknikak

Ingurune Ekonomikoaren Analisia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ingurune historiko, politiko, soziala eta ekonomikoa adieraztea, eta ekonomia zientzia bezala metodologiaren ezaguera ulertzea. Oinarrizko ezaguera lortzea errealitate ekonomikoa interpretatzeko eta analizatzeko asmoz. Ekonomia jardura aztertzei tresna eta adierazle nagusiak ezagutzeko. Informazio ekonomikoa biltzeko, ulertzeko eta aztertzei gai izatea.

Edukiak: Merkatuaren mekanismoa. Merkatuaren akatsak. Estatuaren esku-hartzea. Ekonomia-jardueraren analisisirako adierazle nagusiak eta oinarrizko osagaiak. Adierazle monetarioak eta finantzariak. Ekonomiako kanpo sektorearen bilakaeraren analisia. Enplegua eta lan merkatua. Inflazioa: arazoak, adierazleak eta aurre egiteko politikak. Sektore publikoa politika ekonomikoa.

Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Hainbat kontzeptuz jabetzea, hala nola publizitatearen arloko komunikazioaren eta harreman publikoen analisi eta planifikazioa, eta hedabideekin harremanetan jartzeko baliatu ohi diren teknikak eta estrategiak. Ikuspegi zabaltzea informazioaren kudeaketan modu eragingarrian aritzeko, bai barne- bai kanpo-komunikazioaren arloan, edozein delarik enpresa edo erakunde mota.

Edukiak: Komunikazioa zuzendaritza-estrategia gisa. Komunikazio komertziala. Komunikazio korporatiboa: identitatea, kultura eta jarrera korporatiboa. Komunikazio instituzionala eta politikoa. Komunikazio teknikak: Publizitatea, Harreman Publikoak, Patrozinioa, Mezenazgoa, Ekintza Bidezko komunikazioa, Ekitaldien antolaketa, Promozioen komunikazioa, Propaganda, etab.

Ikus-entzunezko Hizkuntza

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Garrantzitsuak eta funtsezkoak diren kontzeptuak ezagutzeko eta tresna metodologiko egokiak erabiltzeko ikus-entzunezko mezuek (publizitate-irudiak, telebistako erreportajeak, serieak, filmak, etab.) zehaztasun eta koherentzia handiagoz interpretatzeko eta lantzeko. Ikus-entzunezko testuen aurrean izpiritu kritikorekin aztertzei beharrezkoak diren gaitasun minimoak garatzea.

Edukiak: Lengoaia eta Komunikazioa: irudiaren gizartea, oinarrizko definizioak. Ikus-entzunezko pertzepzioa. Ikus-entzunezko irudikapena. Ikus-entzunezko osagaiak: eszenaratzea, kodratzea eta planoen antolamendua, mugimendua, soinuaren osagaiak. Mugimendua: espazio eta denbora jarraitutasuna, trantsizio-elementuak, muntaketa.

Berrien Idazkera Prentsan

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Kazetaritza-Idazkeraren munduan murgiltzea, hedabide inprimatuak begira. Albistea eta bere osagaiak (titulua, sarrera, gorputza...) lantzea. Kazetaritza-generoak ikastea eta genero horien testu-ezaugarriak bereiztea. Kazetarien betebeharrak zein testuingurutan gauzatzen diren ezagutzeko.

Edukiak: Interpretazioa kazeta-jardunean. Kazetaritza-lengoaia eta kazetaritza-generoak. Albistea eta horren idazketa. Titulu informatiboa. Informazioaren sarrera. Albistearen corpusa. Gertakarien balorazioa. Informazio-iturriak. Kazetari-jarduna testuinguru legalean. Espainiako hedabideen ekosistema. Internetarako informazioa.

Euskararen Erabilerak Komunikabideetan (euskarako taldea)

Beste adar batzuetako Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ikasleak hizkuntzaren garapenean duen erantzukizunaz jabetzea. Komunikabideetako genero nagusien hizkuntza-ezaugarriak eta baliabideak identifikatzea eta praktikan garatzeko gaitasunak lantzea. Estilo gomendio nagusiak ezagutzeko, eta hizkuntza-auziak kritikoki aztertu eta erabakitzeko gaitasuna garatzea.

Edukiak: Hizkuntza Komunikabideetan: Erronkak. Generoak eta erregistroak: Hizkuntza estrategiak. Komunikabideetako hizkeraren estiloa: Gida-lerro nagusiak.

Gaztelaniaren Erabilerak Komunikabideetan (gaztelaniako taldea)

Beste adar batzuetako Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Hizkuntza baten araudia erregulatzen duten hiru eremuen inguruan hausnartzea: idazkera zuzena, hiztegiaren erabilera ona eta gramatika-arauak menderatzea. Espainieraz edozein formatu zein hedabideetan argitaratutako testuetako erabilera ortografikoak, gramatikak eta lexikoak ikastea.

Edukiak: Arau linguistikoaren kontzeptua eta Akademien eginkizuna. Espainieraren aldaerak: diatopika, diastratika, diafasika. Akademia, Cervantes Institutua, Fundéu, estilo-liburuak eta interneteko espainierari buruzko hainbat webgune. Ortografia. Gramatika: morfologia eta sintaxia. Lexikoa.

Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Pertsuasioak egungo gizarteetan duen funtzioaz jabetzea, pertsuasioaren agerpen desberdinak bereiztea eta agerpen guztien oinarri komuna antzematea. Komunikazio egoeraren arabera estrategia eta mezu pertsuasiboak diseinatzea.

Edukiak: Ahozko komunikazioa. Pertsuasiorako sarrera: Ikuspuntu teorikoak. Aktitude eraketa eta aldaketa. Pertsuasio iturria. Mezua: Edukia eta antolaketa. Ezaugarri pertsonalen eragina pertsuasioan. Pertsuasioaren testuingurua.

Komunikazioari Aplikaturako Estatistika

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Komunikazioan gizarite ikerketa egiteko egun garatzen diren hiru lerroak barnebiltzea: kazetaritza-errotirritakoa, publizitatean garatutakoa eta ikus-entzunezko komunikazioko ikerketekin harremanetan dagoena.

Edukiak: Ikerketa prozesua eta estatistika ikerketan. Estatistika deskribatzailea eta estatistika inferentzialera sarrera. Datu kuantitatiboaren hedapena eta hedabideak.

Informazio Generoak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Informazio genero nagusiak ezagutzeko: berria, elkarrizketa, erreportajea eta kronika. Kazetari-irizpidea zimentatzea eta bultzatzea. Informazio-dukia lortzea, egituratzea, laburbiltzea eta idaztea.

Edukiak: Sarrera: Kazetaritza hizkuntza eta estiloa. Kazetaritza generoak. Albistea: Osagaiak eta egitura. Erreportajea. Elkarrizketa. Kronika.

Gaur Egungo Munduaren Historia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Munduko eta bereziki Europako bilakaera historikoaren ildo nagusiak baloratzea XX. mendean zehar, horrela bizi dugun mundua ulertu ahal izateko. Testu, grafiko eta mapa historikoak aztertzea. Historialari eta bestelako gizarite zientzialarien liburuei buruzko aipamen kritikokoak idaztea.

Edukiak: Bigarren Mundu Gerraren osteko nazioarteko ordena berria. Europaren eraikuntza-prozesua. Herri-demokraziak Europan. Deskolonizazioaren hastapenak. Kontinente amerikarra II Mundu Gerraren amaieratik. Herri afroasiatikoaren esnatzea. Mundu kapitalistaren bilakaera. Deskolonizazioaren bukaera. Sistema sozialistaren hondamena eta Sobiet Batasunaren desagerpena. Ordena berri baterantz.

Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezkoen alorreko proiektuen diseinu eta errealizazioarekin erlazioaturiko oinarri teorikoak eta praktikoak ezagutzeko. Ikus-entzunezko egitasmo berritzaileak sortu eta abian jartzeko gaitasuna garatzea.

Edukiak: Bideo-seinalea: Oinarri teknikoak, mugimendua, kolorea. Kamerak: motak, oinarriak, osagaiak. Objektiboak: diafragma, enfokea, foku-distantzia, enfoke ingurua. Edizio ez lineala. Argia. Soinua eta mikrofonoak.



Ziberkazetaritzako Idazkera

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 42 h Magistrala; 18 h Gelako Praktikak

Helburuak: Interneteko generoen oinarriak lantzea; haien ezaugarrietan, egituretan, erabileran eta estiloan sakonduz. Hau da, zibergeneroen ezaugarriak, estilo eta narratio-teknikak aztertzea, banan-banan, hipertestua, multimediasuna eta elkarreragina bezalako bereizgarrietan oinarrituz. Ohiko informazio-genero, interpretazio-genero eta iritzi-generoekin praktikatzea.

Edukiak:Sarrera: Ziberkazetaritza eta kazeta-idazketa berria. Interneteko testuinguru mediatikoa eta erredakzio lana. Ziberkazeta-mezua interneten: Interneteko kazetaritza-lengoiaren ezaugarri oinarriak; Ziberkazetaritza-generoak; Bilaketa tresnetarako idazkera eta posizionamendua; Kazetariaren marka pertsonala.

Konstituzio Zuzenbidea

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Hizkuntza eta kontzeptu juridikoak komunikatzea eta erabiltzea hedabideetako genero eta formatu desberdinetan.

Edukiak: Estatu ordenamendu juridiko bezala. Zuzenbide iturriak. Estatu forma eta gobernu forma. Kontrol juridikoa.

Berrien Idazkera Irratian

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 14 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Irrati idazketaren oinarriko adierazpideak azaltzea. Irrati albistegiak diseinatzen, ekoizten, idazten eta aurkezten ikastea.

Edukiak: Informazio iturriak. Albistegiak. Erreferentzi generoak irratan: Albistea, Erreportajea, Informea. Elkarrizketa generoak: Elkarrizketa, Inkesta.

Kazetaritzaren Teknologia

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Teknologia berriei ikuspuntu profesional batetatik hurbiltzea. Datuen bilaketatik hasita, informazioaren kudeaketa eta mami informatiboaren edizio eta publikazioraino, euskarri digitaletan zein inprimatutakoetan.

Edukiak: Hardware. Sistema operatiboak. Nabigazioa. Bilatzaile-Motorrak. Aparailu mugikorak eta konektibotasuna. Irudi digitala. Inplikazio juridiko eta etikoak. Mami Kudeaketarako Sistemak. Inprimaketa sistemak. Beste erreminta digital batzuk.

Nazioarteko Harremanak

Adarreko Oinarrikoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Nazioarteko Harremanak ikasketari sarrera orokorra egitea. Gaur egungo nazioarteko gizartearen genesisia eta egungo egoera aztertzea eta baloratzea. Gizateriak XXI. mendean maila globalean aurre egin behar dizkion prozesu, arazo eta erronka nagusiak.

Edukiak: Nazioarteko Harremanen sarrera teoriko-kontzeptuala. Nazioarteko Gizartearen Aktoreak. Nazioarteko Sistemaren Egitura. Nazioarteko Gizartearen oinarriko prozesuak. Gizateriak Aro Globalean dituen erronka nagusiak.

**Gizarte Komunikazioaren Historia Orokorra**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Hedabideen historiaren eta kultura orokorraren oinarriko ezagutza eskuratzea, ikasleei etorkizunean kazetari lanetan aritzeko oso baliagarria izanen zaiena.

Edukiak: Komunikazioaren Historiaren kontzeptualizazioa eta kontu metodologikoak. Mintzamenaren jatorria. Idazkeraren sorrera. Komunikazioa Antzinaroan. Txina. Bibliatik Koranera. Moldiztegitik iraultza burgesetara. Prensaren jatorria Euskal Herrian. Liberalismoa, kapitalismoa eta masa hedabideak. Utopia, distopia eta propaganda XX. mendean.

Berrien Idazkera Telebistan

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 14 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: XXI mendeko ikus-entzunezko hedabideetan jarduteko behar diren profesionalak prestatzea da, bereziki telebistako erredakzio lanean behar diren elementu eta teknikei erreparatuz.

Edukiak: Telebistako narrazioen arauak. informazioa burutzeko prozesua. Telebistako informazioaren aurkezpena eta ahozko adieraztea. Telebistako informazio generoak. Telebistako informazio saioak. Kazetaritza digitala eta transmedia komunikazioa.

Komunikazio Teoriak

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikazioaren fenomeno bere era eta eredu askotarikoak deskribatzea. Prozesu komunikatiboaren eta masa-komunikazioaren eraginak azaltzea eta ikastea.

Helburuak: Komunikazio-prozesuak eta informazioa. Giza komunikazioaren ezaugarriak. Gizarte-komunikazioaren ezaugarriak. Komunikazio-ereduak azaltzeko teoriak. Informazioa eta desinformazioa gizarte-komunikazioan. Gizarte-komunikazioa eta gu.

Dokumentazio Iturrien Kudeaketa

Adarreko Oinarrikoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Alfabetizazio informazionalaren inguruko ezagutza orokorrak eskuratzea, ikasleak gaitasuna izan dezan ikaskuntzan zein lanean beharko dituen informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko, eta, halaber, modu etiko eta eraginkorrean erabiltzen jakin dezan. Eduki espezializatuko informazioa eta komunikabideei eta lan informatiboari lotutako teknikak eskuratzeko baliabideak lantzea, iturrien digitalizazioa eta horiek internet bidez nola eskuratu kontuan hartuta.

Helburuak: Dokumentazio Informatiboa: zer da eta zertarako balio du. Informazio- eta Dokumentazio-iturriak: informazioa non aurkitu, erreferentziako lanak. Prozesu dokumentala: informazioa nola hautatu, analizatu eta gorde. Ikerketa lanen metodologia. Aipua eta erreferentzia bibliografikoak. Gradu Amaierako Lanak. Informazioa berreskuratu. Interneti buruzko hausnarketa. Dokumentazioaren aplikazioa Ikus-entzunezko Komunikazioan.

Informazioaren Zuzenbidea

Adarreko Oinarrikoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Albisteak idazteko eta beste informazio-produktu batzuk egiteko, adierazkorrak, publikitatezkoak edo aisialdikoak, egiaztatze- eta erredakzio-teknikak modu egokian erabiltzea, era horretan lanbidearen egikaritzan erantzukizun juridikoak (penalak, zibilak, lan-eremukoak edo administrazio-eremukoak) ekiditeko. Adierazpen- eta informazio-askatasunen eduki eta muga zehatzekin zerikusia duten alderdietan sakontzea. Eremu honetan ezagutza sakonak lortzea.

Helburuak: Informazioaren Zuzenbidea. Adierazpen- eta informazio askatasunak. Kanpo- eta barne-mugak. Ideologia adierazteko askatasuna eta haren mugak. Parte-hartze murriztaileak. Informazioa jasotzeko eskubidea. Sekretu ofizialak eta botere publikoaren informaziora sartzeko mugak. Kontzientzia-klausula. Sekretu profesionala. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak. Zuzenketa-eskubidea. Gazteen eta haurren babesa. Informazioaren profesionalaren estatutu juridikoa. Ikus-entzunezko hedabideen erregimen juridikoa.

Fotokazetaritza

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Komunikabideetara bideratutako argazki-adierazpenean sakontzea. Lengoaia fotografikoaren elementu nagusiak ezagutzea. Komunikabideetara bideratutako argazki-adierazpenetan sakontzea. Gaiaren inguruko elementu teorikoak ezagutu eta menderatu ondoren, berriemaile grafikoen baliabide teknologikoetan murgiltzea.

Edukiak: Kameraren funtzionamendua eta baliabide teknologikoak: Kamera digitala, Fokatze prozesua, Diafragma, Eremu sakonera,Obturazio abiadura, Sentikortasuna eta ISO baloreak, Zurien balantzea, Argiaren neurketa-motak, Esposizio-mota desberdinak, Objektiboak. Argazki-konposizioaren oinarriak: Formatua lantzen, Interes-puntua, Planoak, Hartualdi-angeluak, Ikuspenaren ibilbidea, Motiboei markoa jartzea. Fotokazetaritza eta analisi fotografikoa.

Interpretazio Generoak

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak; 14 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Informazioetan subjektibitatearen berezko elementuak sartzen ikastea: analisia, balorazioa eta behaketa. Baliabide estilistiko eta literarioak zuhurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzea, informazioa bere itxuran ederresteko.

Edukiak: Interpretazio eta errealitatea egungo kazetaritzan. Interpretazio ikuspegiak informazioan. Literatur elkarrizketa, interpretazio edo pertsonaia elkarrizketa. Erreportaje interpretatiboa. Kronika interpretatiboa.

Kazetaritza Diseinuaren Oinarriak

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Kazetaritza esparruan ohikoenak diren edizio programa profesionalak erabiltzeko gaitasuna eskuratzea, hauek kazetaritza idazkuntza irizpideekin uztartuta. Sorrera eta diseinuaren bitartez, kazetaritza proiektu baten fase guztiak modu arrakastatsuan burutzeko gaitasuna erakustea, lehen ideiatik honen ekoizpenera eta azken argitalpena arte.

Edukiak: Prentsa, teknologia eta diseinuari buruzko testuingurua. Kazetaritza diseinuaren elementuak: Formatua, Burukoa, Zutabea, Orrialdea, Tipografia, Titulazioa, Ilustrazioak, Baliabide tipografikoak, Zuriak, Koloreak, Egunkariaren egitura, Publizitatea. Hedabide berriak: Egunkari digitalen diseinu aldaketak.

Kazetaritzaren Historia

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Espainian eta Euskal Herrian kazetaritzako mezuen eta hedabideen garapen historikoa aztertzea, XIX. mendean hasi eta posfrankismoraino. Aztertutako hedabideak idatziak, irratikoak eta ikus-entzunezkoak dira.

Edukiak: Kazetaritzaren historiaren alderdi kontzeptual nagusiak. Espainiar estatuko prentsa XIX. mendearen hasieratik postfrankismora arte. Espainiar estatuko irrati eta telebistaren historia. Euskal/euskarazko prentsaren historia. Kazetaritza, gizarte eta ideologiaren arteko harremanak.

Infografia

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Hedabide inprimatu eta digitaletan argitaratzen diren arrakasta handiko kazeta-produktuen diseinua, edizioa eta produkzioa lantzea.

Edukiak: Infografia. Motak: Taulak, Ilustrazioak, Grafikoak, Mapak, Marrazkiak eta elementu figuratiboak. Infografien elementuak eta betetzen dituzten funtzioak. Infografia eta narrazioa. Infografia gaur egun eta etorkizunean.

Interneteko Gizarte Kazetaritza Parte-hartzailea

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Aro digitalean self-media gero eta garrantzitsuagoa dela ulertzea. Sare sozialetan profil profesionala definitzea, informazioa bilatzeko, sortzeko eta banatzeko.

Edukiak: Ziberkazetaritza pertsonaletik kazetaritza sozial eta parte-hartzailera. Deretxoak eta eduki politikak kazetaritza parte-hartzailearen baitan. Blog eta CMS sistemak kazetaritza sozial eta parte-hartzailean. Mikroblogging sistemak eta beren ezaugarriak. Informazioaren sindikazioa eta kudeaketa kazetaritza sozial eta parte-hartzailean. Informazioaren kuratzea eta erremintak.

Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Nazioarteko erakundeen komunikazio kudeaketari buruzko ikuspegi sistematikoa eskaintzea. Gainera, kontuan hartuko da bere eragina eta kanpo proiektzioa informazio-sistema eta komunikazio publikoen sistemetan.

Edukiak: Nazioarteko erakundeen oinarri teoriko eta praktikoak. Nazioarteko erakundeak komunikazio sistemak bezala: Oinarrizko dimentsioak. Nazioarteko erakundeak komunikazio sistemak bezala: Berezko arazoak.

Multimedia Edizioa eta Produkzioa

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Multimedia ekoizpen-sistemak ezagutzea eta alderatzea. Multimedia ekoizpenak antolatzea eta egitea. "Multimedia" munduak gizartean eta pertsonarengan duten eragina neurtzea.

Edukiak: Kontzeptualizazioa: multimedia edizio eta ekoizpenaren definizioa eta gakoak. Multimedia lengoaia: ezaugarri propioak eta ezaugarri komunak beste kazetaritza-hizkuntza batzuekiko. Multimedia lan periodistikoen edizio-teknikak: alorrak, muntaketa motak eta edizioa. Multimedia lan periodistikoen ekoizpen prozesua. Multimedia ekoizpenen sistema orokorrak.

Informazio Lokuzioa

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Irrati formatuan nahiz kamera aurrean gauzatzen den ahozko diskurtso komunikatiborako beharrezkoak diren gaitasunak bereganatzea. Albistegi batean ahotsaren kontrol eta maneiuak daukan garrantziaz jabetzea.

Edukiak: Lokuzioa eta beldur eszenikoa. Fonetika: Bokalak eta Kontsonanteak. Ahotsaren ekoizpena. Ahotsaren ezaugarriak. Ahotsaren hezkuntza. Prosodia: Doinua, Azentua eta Erritmoak.

Erreporterismoa

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Erreportajearen irakurketa analitiko zein kritikoaren sustatzea. Kazetaritza-erredakzioan sakontzea. Kazetaritza-erreportaje bat egiteko nahitaezkoa da lan sistema ezagutzea eta hartan trebatzea. Zintzotasunez zein lanbidearen deontologiarekin bat egindako lan egiazko baten garrantziaz kontzientziaztea.

Edukiak: Definizioa: Zer da erreportajea? Erreportajearen historia. Erreportajearen tipologia. Erreportajearen egitura: Titulazioa, Sarreratxoak, Gorputza, Itxiera. Erreportajearen estiloa. Ikerketa erreportajean: Gaia aukeratzeko jarraibideak, Ikuspegiaren garrantzia, Informazio iturriekin lan egitea, Informazioaren egiaztapena, Informazioaren aukeratzea. Erreportaje garaikidea: Joera berriak.

Hedabideen Ereduak

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Teknologia berrien hedapenaren ondorioz sortutako kazetaritza hizkuntza eta komunikazio modu berriak eta haien hedabideetako aplikazioa aztertzea. Jendarteko aldaketen, teknologia garapenaren eta hedabideen ereduen arteko elkarreragite estuaz gogoeta egitea.

Edukiak: Hedabideak: errealitatea eraikitzeko tresnak. Eguneroko prentsa. Egunerokoa ez den prentsa. Telebista. Irratia. Hedabide ereduak interneten. Barne komunikaziorako ereduak (antolakundeetan). Beste hedabide eredu batzuk.

Bozeramaileen Prestakuntza (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak; 7 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Diskurtso bat era koherente eta sinesgarrian artikulatzeko gai izatea. Jende aurreko jarduna hobetzea. Jendaurreko aurkezpenak modu egokian egiteko gai izatea, edozein hedabide motaren aurrean eta edozein egoera komunikatibotan.

Edukiak: Komunikazio Kabineteak gaur. Masa-hedabideen jarria ziberkulturanen garaian. Bozeramaileen diskurtsoa: Erretorikaren bost egitekoak. Bozeramaileen trebakuntza etxe barruan eta etxetik kanpo. Bozeramailea eta krisia. 2.0 bozeramailea.

Harreman Publikoen Teknikak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak

Helburuak: Harreman Publikoen teknika nagusiak ikasi eta erabiltzeko gaitasunak hartzea: publicity-a, online komunikazioa, Harreman Publikoen publizitatea, ekintzak eta lobbying-a.

Edukiak: Idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko komunikazioa. Internet Harreman Publikoetan. Publizitatea Harreman Publikoetan. Ekintza Bereziak Harreman Publikoetan. Hedabideak. Barne Komunikazioa. Komunitatea. Kontsumitzaileak. Erakunde Publikoak. Gobernuz kanpoko erakundeak.

Euskararen Arauak eta Erabilerak (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikabideetako profesionalek euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, hizkuntzaren normalizazioan eta biziberritzean duten erantzukizunaz jabetzeko.

Edukiak: Hizkuntzaren arauak eta erabilera komunikabideetan. Komunikabideetako testuak: Hizkuntza Ezaugarriak; Testugintza. Kontsulta-Baliabideak.

Informazio Enpresa

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Informazio enpresaren eta hedabideen merkatuaren izaera eta funtzionamendua ulertzeko beharrezkoak diren baliabideak bereganatzea. Informazio enpresa bideragarri bat sortzeko plangintza diseinatu eta garatzeko gai izatea.

Edukiak: Enpresa. Informazio enpresari buruzko kontzeptu orokorrak. Informazio-produktuaren merkaturatzea: Marketin estrategikoa eta marketin operatiboa, Informazio-produktua, Diru sarrerak eta irteerak, Banaketa, Promozioa, Hedapenaren eta audientziaren neurketa, Publizitate merkatua. Informazio-merkatuaren egitura. Hedabideen kontzentrazioa.

Iritzi Generoak

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Iritzi-testu mota ezberdinak aztertzen eta idazten ikastea. Kazetaritza mezua antolatzeke ezinbestekoak diren argudio tresnak bereganatzea.

Edukiak: Ideologia prentsan. Iritzirako kazeta generoak. Iritzia eguneroko kazetan. Editoriala. Glosa. Artikulua. Iritzi marraztua. Zutabea. Iruzkina. Kritika eta erreseina. Iritzi generoen titulazioa. Prentsa irakurlearen iritzia.

Prentsa Edizioa

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Edozein Idazgelatako edizio lana ezagutzea, hau da, testua argitaratzeko prest uzteko egiten den zuzenketa eta hobekuntza lana. Edizio lanaren oinarria ulertzea.

Edukiak: Hedabidea, munduari zabalduko leihoa. Hedabide bakoitzaren estilo liburuak eta euren funtzioak. Editorea, testu zuzentzaile zaharraren orde. Dokumentazioaren lana. Zehaztasuna. Laburtasuna. Testu eta material grafikoaren arteko harremana. Informazioaren gaurkotzea. Hizkuntzaren garbitasuna. Izenburuak.

Tokiko Hedabideak: Informazio Produktua Sortzea

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Tokian tokiko komunikazioa landuz, ikasleek eurek aukeratutako euskarrian (idatziz, ikus-entzunezko, digital: web orrialde edo blog) produktu informatibo bat sortzea hasieratik bukaerara arte; hau da, produktu horren sorrera prozesua pausoz pausu ezagutu eta bizitzea.

Edukiak: Tokian tokiko komunikazioaren mundua. Tokian tokiko informazioaren antolakuntza. Tokian tokiko informazio iturriak. Internet eta tokian tokiko informazioa. Tokian tokiko informazio produktua sortzeko faseak: Produktuaren diseinua, Enpresaren diseinua, Produktuaren sorrera, Hedapena eta komertzializazioa.

Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Nazioarte mailan orokortuak dauden teknika eta estrategiak aztertzea eta garatzea. Teknika eta estrategia horiek aplikatu ahal dira erakunde eta gobernu komunikazioan, komunikazio politikoan, hauteskunde kanpainetan edota gizarte erakundeen komunikazioan.

Edukiak: Komunikazio publiko-politikoaren esparrua. Lidergoa. Komunikazio politiko eta hedabideak. Hizkuntzak, erritualak eta politikaren sinboloak. Hauteskunde kanpainen komunikazioa. Erakunde publikoen Komunikazioa. Interneten erabilera komunikazio publikoan.

Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Medioen testuinguru profesionaletako eskakizunei egokiro erantzuteko funtsezkoak diren ahalbide komunikatibo eta linguistikoak sendotzea eta garatzea; une oro gogoan izanda komunikabideetako testu bat planifikatzeko, ekoizteko zein hedatzeko prozesuetan dauden erabaki linguistiko-diskurtsiboak.

Edukiak: Testua testuinguruari begira. Komunikabideetako testuen ahoskera: Euskararen Ahoskera Zaindua. Testuak egituratzeko estrategiak: generoaren arabera, euskarriaren arabera, interneten. Testuratzeko teknika komunikabideetako testuetan. Testuak eta haien hedapena: testu-idazketa hedapen-estrategiaren arabera.

**Deontologia eta Hedabideak**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Hedabideek eta informazioko profesionalek bere egiten dituzten autorregulazio tresnen jakitun izatea. Etikarekin bat datorren eta arau eta printzipio deontologikoak errespetatzen dituen kazetaritza jarduera sustatzea.

Edukiak: Kazetaritza jardueraren etika eta deontologia. Kazetariaren antolaketa kolektibo gisa. Komunikazio-enpresaren etika eta autorregulazioa. Zenbait etika gai nabarmen. Hedabideen begiraleak. On-line hedabideak eta etika.

Kazetaritza Espezializatua

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak; 14 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Ikasleen prestakuntza kazetaritza espezializatuko genero, formatu eta edukietara zuzentzea. Kazetaritza espezializatuan lan egiteko era ikastea.

Edukiak: Kazetaritza eta espezializazioa. Kazetaritza espezializatuaren ekoizpena. Kazetari aditua. Herriko informazioa. Kazetaritza Politiko. Kazetaritza Ekonomikoa. Nazioarteko Kazetaritza. Zientzia-Kazetaritza. Kultur-Kazetaritza. Kirol Kazetaritza.

Idatzizko Adierazpena Komunikabideetan

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Idazkuntzan trebatzea, hainbat esparrutan eta hainbat euskarritan. Kazetaritza-genero ohikoak jorratzea.

Edukiak: Idazkuntza-ohiturak. Adierazpide sinbolikoak eta kazetariaren begirada. Narrazio-teknika eta kazetaritza-testuak. Sormen-estrategiak.

Espainiaren eta Euskal Herriaren Historia Garaikidea

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: XX. mendean zehar Espainiako eta Euskadiko bilakaera historikoaren ezaugarri nagusiak aztertzea, munduko eta Europako testuinguruan kokatuz, egungo gizartea ulertzeko helburuz.

Edukiak: Masa-gizartea eta Errestaurazioaren krisia. Primo de Rivera-ren diktadura eta Monarkiaren amaiera. Euskadiko modernizazio sozio-ekonomikoa eta pluralismo politikoa. II. Errepublika. Guda Zibila. Autonomiarako bide luzea eta lehen Euskal Gobernu. Gerraoste luzea. Diktaduraren ezarpena Euskadin. "Desarrollismo"-tik frankismoaren krisira. Diktaduratik Demokraziarako Trantsizioa. Trantsizioaren ezaugarri bereziak Euskadin eta euskal autonomiaren eraikuntza.

Pentsamendu Politikoaren Historia

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Teoria eta ideologia politikoak sortu diren momentuetako testuinguru sozial eta politikoak aztertzea. Testuinguru horiek aztertzeke eta azaltzeke gai izatea, hedabideetako genero eta formatu desberdinetan.

Edukiak: Makiavelo, Erreforma protestantea eta Estatu modernoaren hastapenak. Hobbes eta Ingalaterrako Iraultza. Locke eta Liberalismoaren sorreraren arazoa. Ilustrazioa Frantzia eta Erresuma Batuan: Montesquieu, Rousseau, D. Hume eta A. Smith. Iraultza atlantikoak. Liberalismoa eta demokrazia: J. Stuart Mill eta Tocqueville. K. Marx eta bere jarraitzaileen pentsamendua. Lenin eta Errusiako Iraultza. Mugimendu faxistak.

Komunikazio Bulegoak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 57 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikazioak erakundeetan duen garrantzia eta komunikazio planaren inportantzia ulertzea. Komunikazio bulegoen funtzionamendua aztertzea, barne zein kanpo komunikazioaren esparruan.

Edukiak: Komunikazio bulegoak: definizioa, helburuak eta funtzioak. Komunikazio bulegoak instituzio, enpresa eta beste erakundeetan. Bulegoen tipologia. Kanpo komunikazioa. Barne komunikazioa. Krisi komunikazioa. Teknologia berriak komunikazio bulegoetan.

GRADU AMAIERAKO LANA

12 kreditu

PRAKTIKAK ENPRESETAN

Hezkuntzarako lankidetzak praktikek aukera ematen diete ikasleei **enpresa eta erakunde publiko zein pribatuen errealitatera hurbiltzeko** eta, hartara, langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak. Horrela, beren prestakuntza akademikoa osa dezakete eta lan esperientzia eskuratu, titulazioan ikasitakoarekin zerikusia daukaten atazak eginez.

Praktikak borondatezkoak dira, baina ia ikasle guztiek egiten dituzte, graduko **hirugarren eta laugarren mailatan**. Fakultateko irakasleen tutoretzapean egiten dira, eta haiengatik ikasleei 6 kreditu aitortzen zaizkie, hautazko irakasgaiekin egiten den bezala.

Gure praktika programetan parte hartzen duten ikasleen **gogobetetze maila altua** ikusteak animatu egiten gaitu etengabe hobetzen jarraitzea gure ikasleak laneratzeko abian dauzkagun prozesuetan.

Kazetaritzako Graduko ikasleek praktikak egiteko **300 enpresa, instituzio eta fundazio baino gehiago** dauzkate beren esku: **Hedabideak** (EITB, Noticias Taldea, RTVE, Vocento Taldea, ATRESMEDIA, Mediaset...); **Albiste eta Komunikazio agentziak** (EFE, Europress, Local Press...); enpresa eta erakundeetako **Komunikazio Departamentuak; Komunikazio Aholkularitzak; Komunikazio arloko Elkarteak**; etab.

Fakultateko webgunean lauhilabeteko bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien informazio gaurkotua ikusgai dago: enpresa, eginkizunak, betebeharrak eta ordainsaria.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Graduko bigarren mailatik aurrera, ikasleek bi mugikortasun programetan parte har dezakete, egonaldiak egiteko atzerriko eta estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasten. Ikastaldiaren epea aukera dezakete: lauhileko bat edo ikasturte osoa.

Hauek dira mugikortasun programak:

1. **Erasmus+**, Europako unibertsitateetarako: Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suedia, besteak beste.
2. **UPV-AL**, Latinoamerikako unibertsitateetarako: Argentina, Brasil, Kolonbia, Mexiko, Peru, Txile, besteak beste.
3. **Beste Norakoak Programa**, AEB, Kanada eta Hego Koreako unibertsitateetara joateko.
4. **SICUE**, Estatu Espainiarreko unibertsitate nagusien arteko trukeerako.

Nazioarteko mugikortasun programetan ikasleek ingelesez, frantsesez edo alemanez ikas dezakete. Horretarako, ikasleak hizkuntza horietan gaitasuna daukala egiaztatu beharko du.

Mugikortasuna bi norabideetan da, hau da, gure ikasleak atzerriko unibertsitateetara doazen bezala bolada batez ikastera, gure Fakultateak ere urtean atzerriko 100 ikasletik gora hartzen ditu. Ez da, beraz, ezohikoa gure ikasleak atzerriko ikasle horiekin ibiltzea ikasgeletan, laborategietan eta beste espazio batzuetan.

